

# PR-Gi 22

## VUELTA A MUTRIKU

MUTRIKUKO UDALA

EUSKADI con mucho gusto

BURUMENDI M.E.

1 Este recorrido comienza en el cruce de Mauleón, por la derecha de la carretera comarcal GI-638 en dirección a Deba.
Comenzamos a subir por una pista de cemento de fuerte desnivel, para continuar por un sendero que por la parte S. del caserío y camping Aitzeta nos llevará hasta San Juan.



**CASA TORRE DE ARITZETA (AITZETA)**

En esta casa-torre de Aitzeta vivieron el bachiller Juan Ochoa de Berriatua y su mujer, quienes en 1576 fundaron en dicha torre el convento de Santa Catalina de las Madres Agustinas Ermitañas.

En 1638, por disposición papal (Concilio de Trento), los conventos de esta naturaleza debían estar ubicados intramuros, y por esta razón trasladaron el mismo a la torre de Berriatua "Sulengua", intramuros de la villa.

En 1661 se construyó por donación de Pedro de Idiaquez, el actual convento de Santa Catalina de las Madres Agustinas. En la fotografía, la casa torre de Aitzeta reconstruida a raiz del incendio que se produjo el 16 de diciembre de 1957.

En el recuadro pequeño, podemos apreciar la lápida que se conserva con una inscripción en letras góticas y en la que consta el año de construcción (1470), dos estrellas, una cruz en el centro, un castillo, un león y el anagrama I.H.S.

Continuaremos por la derecha frente al restaurante San Juan, siguiendo una carretera ascendente y a 250 m. en una curva, en las cercanías del caserío Pikua, dejamos la carretera para coger a la derecha el sendero que nos llevará a la Ermita del Calvario. Habremos pasado por las cercanías de caserío Baldomin y un poco más alejado Maixa.



**BARRIO DE LARANGA**

El barrio de Laranga, con sus caseríos diseminados y con unas maravillosas vistas hacia el mar que cubren desde Matxitxako hasta Hondarribia, hacen del mismo un enclave privilegiado y paradisíaco.

2 Del Calvario, haciendo el camino inverso del Vía Crucis, llegamos a la carretera Mutriku-Sasiola, lo atravesamos y seguimos para pasar junto a los caseríos Arremieta y seguidamente Eizarre. A 20 m. de este último caserío, abandonamos la carretera para coger la pista ascendente a la izquierda SW. con vistas al barrio de Ibiri.

**ERMITA DEL CALVARIO**



Construida en 1689, ha sufrido varias reconstrucciones; en 1900 el exterior, y en 1940 también el interior.

El retablo, de estilo neoclásico, es del siglo XVII y los dos lienzos al óleo fueron pintados por el artista mutrikuarra Bittor Furundarena.

Si el Santo Cristo del Calvario tiene muchísima devoción entre los mutrikuarras, en los arrantzales tiene un significado especial, ya que al divisarlo desde el mar pedían su socorro en innumerables ocasiones para evitar naufragios.

Bordeando el monte Sakontxiki, con la virgen de Apain en el camino, llegaremos al collado de Aparain. 3

A 50 m. en dirección a Ormola encontraremos una estela junto al camino, en el cruce, seguiremos hacia el S. por un sendero que nos llevará subiendo suavemente entre pinos y encinas hasta el refugio de Arno.



Detalle de la estela de Apain.

**COLLADO DE APARAIN (APAIN)**

Referencia importante en el camino de la costa hacia Santiago, al igual que los enclaves de Ormola, Ameigurutz y Arnoate citados en documentos del siglo XII.

A dichos puntos se accedía tanto desde Sasiola/Astigarribia, así como desde Mutriku para entrar en Bizkaia.

Del refugio, a 300 m. en dirección N., encontraremos la cruz de Arno, con excelentes vistas de Mutriku, Deba y toda la costa vasca.

De nuevo en el refugio y cogiendo el sendero S. (Ameikutz), subimos una pequeña loma y 50 m. más adelante giramos 90º para bajar un trecho, donde nos encontraremos con un bonito sendero que entre encinas atraviesa las laderas occidentales del macizo del Arno.

Al salir al claro, en el cruce cogeremos hacia el W. una buena pista forestal que en poco tiempo nos conducirá hasta el cruce de Ameikutz. 4



**EL ENCINAR DE ARNO**

El monte calcáreo Arno, del Cretácico Inferior, está rodeado de un maravilloso encinar, y es considerado como el mejor encinar del cantábrico.

La U.E. lo incluye en el listado NATURA 2000 de zonas de interés natural.

Aquí cogemos hacia Kostolamendi y enseguida nos encontramos con dos senderos (coger el de arriba NW). En esta zona veremos varios acebos entre helechos y también una estela o piedra con una cruz de hierro; pronto llegaremos entre pinos al cruce de Jangoikomendi.

Continuaremos nuestro camino siguiendo las indicaciones de la señal entre eucaliptos. En las cercanías veremos al S. Damakorta, Mañukorta, Imitxola, y seguiremos a través de pinos, por un buen sendero de tierra, hasta llegar al caserío Kostolamendi. 5

De aquí podemos bajar a Olatz, bien por el camino cementado, o mejor, por el sendero que encontraremos junto al caserío dirección N. pasando un cercado.

Para seguir el recorrido dirección Armetxa-Saturraran, nos adentramos en una buena pista forestal, W, que nos da entrada media docena de hayas; entre algún claro y más pinos, llegaremos a un cruce de caminos.



**ESTELA DE AMEIKUTZ**

De desconocida procedencia, situada en la transitada ruta de la costa en el camino de Santiago, muy cerca de la muga Gipuzkoa-Bizkaia.

Cogemos el que sube dirección N. y enseguida comenzaremos a bajar lentamente a los caseríos Armentxa Goikua y Armentxa Bekua. Aquí cogemos el camino cementado, y al poco tiempo pasaremos por el caserío Elordi; a continuación nos encontraremos con la antigua escuela del barrio Mixkiamendi (hoy casa particular), y despues el caserío Berrosasi. 6

Caserío Armentxa.





A unos 50 m. nos encontramos con un poste de señalización, abandonamos el camino cementado y nos adentramos en la pista, dirección Saturraran.

Subiendo por la pista nos encontramos con un cruce, y siguiendo las marcas cogemos dirección N. (veremos de frente las antenas).
Bajando un poco entre pinos llegamos a la zona de Aldabe. Continuando por la falda E. del monte Tontorramendi llegamos a las antenas instaladas en las cercanías de su cumbre, (desde aquí podemos admirar al W. Sta. Eufemia, Illunzar, Otoio...); seguimos la pista y atravesamos el camino cementado que va a las antenas para continuar por el sendero que baja.

**ERMITA DE SANTAKUTZ**

Ermita muy querida y venerada por los baserritarras de la zona.

Magnífica atalaya con excelentes vistas sobre Ondarroa y su puerto, así como gran parte de la costa. Su festividad se celebra el día 3 de mayo.



Al llegar abajo, sin hacer caso a otras señales que encontraremos, cruzamos la verja para dirigirnos directamente hacia la ermita de Santakutz. De aquí podemos admirar el pueblo y puerto de Ondarroa.
Bajamos en fuerte desnivel hacia la costa entre hayas, acacias y pinos hasta las cercanías del caserío Burgo; a la derecha cruzamos una verja y bajamos hasta Pikupe. 7

Atravesando la carretera Mutriku-Ondarroa en el cruce de Saturraran, cogemos a la derecha el camino asfaltado que sube junto al caserío Etxeberri, para coger el sendero de la izquierda que más adelante y arriba, empalma con otro más ancho que bordeando el camping nos deja a las puertas de Galdona.



**LA COSTA**

La costa nos brinda un escarpado litoral con tranquilas playas y escondidas calas, así como unas inmejorables vistas de la costa vasca. En la foto pequeña, la Virgen de Idurre, cuya imagen según la tradición fue encontrada entre las rocas de este litoral.

Desde Galdona veremos el hermoso caserío Idurre. Junto a la verja de acceso se encuentra en una capilla la Virgen de Idurre. Subiendo por la carretera dejamos a la izquierda el caserío Leizarre y a la derecha Matzuri. Llegamos al camping del caserío Sta. Elena.

Nos introducimos en dicho camping y bajando por la carretera, dejamos la misma para coger una pista forestal y bajar hacia la costa hasta llegar a las ruinas de Santabata. 500 m. más adelante por la carretera-paseo llegamos al parque de San Nicolás y al final del recorrido.



# PR-Gi 22

## MUTRIKU ZEHARKATZEN

MUTRIKUKO UDALA

EUSKADI atsegin handiz

BURUMENDI M.E.

**1** Ibilbide hau Mauleongo bidegurutzean hasten da, GI-638 errepidea hartu eta Debarantz jota.
Malda handiko porlanezko pista batean gora abiatzen gara, Aitzeta baserriaren eta kanpinaren hegoaldetik San Juaneraino eramango gaituen bidezidorretik jarraituz.



**ARITZETA DORRETXEA (AITZETA)**

Aitzeta dorretxe honetan Juan Otxoa Berriatuako batxilerra eta emaztea bizi izan ziren. 1576an Santa Catalina de las Madres Agustinas Ermitañas komentua eratu zuten dorretxean.

1638an, Aita Santuaren erabakiz (Trentoko Kontzilioa), horrelako komentuek harresi barruan egon behar zutenez, "Sulaingua" izenez ezagutzen den Berriatua dorrera eraman zen Aitzetako komentua, harresien barruan.

1661 urtean, Pedro Idiakezen dohaintzaz, gaur egungo Santa Catalina de las Madres Agustinas komentua eraiki zen. Argazkian, Aitzeta dorretxea, 1957ko abenduaren 16an gertatutako sutearen ondorioz eraberritua.

Laukitxoan, hizki gotikotan egindako inskribaketa gorde duen harria ikus daiteke: Eraiki zeneko urtea (1470), bi izar, gurutzea erdian, gaztelua, lehoia eta I.H.S. anagrama.

Eskuinetara jo eta, San Juan jatetxea atzean utzita, goranzko errepidetik jarraituko dugu; 250 metrora dagoen errebueltan, Pikua baserritik hurbil, errepidea utzi eta eskuinera joko dugu Galbaixoko ermitara eramango gaituen bidea hartzeko. Baldomin baserria gertu eta urrunago Maixa baserria utziko ditugu atzean.



**LARANGA (Langa) AUZOA**

Laranga auzoa eta bertan sakabanatutako baserriak toki pribilejiatu eta xarmangarriak ditugu. Itsaso zabalaren aurrean, Hondarrabitik Matxitxakorainoko ikuspegi zoragarriak ditu.

**2** Kalbaixotik, Gurutz-bidea atzekoz aurrera eginda, Mutriku-Sasiola errepideraino helduko gara.
Errepidea zeharkatuta, Arremieta eta Eizarre baserrien ondotik igaro ondoren, bidea utzi eta ezkerretarako bidezidorretik joko dugu, hego-mendebalderantz, Ibiri auzorako ikuspegi ederra gozatuz.

**KALBAIXOKO ERMITA**

1689 urtean eraikia, eraberritze batzuk izan ditu: 1900 urtean kanpoaldea eta 1940an barrualdea.
Neoklasiko erako XVII mendeko erretaularen ondoan, oleoz margotutako mihiseak ikusiko ditugu, Bittor Furundarena artista mutrikuarrak margotuak.



Mutrikuarrek Kristo Galbaixokorenganako debozio handia dute, eta arrantzaleen artean esanahi bereziagoa du, itsasotik ikustean askotan eta askotan laguntza eskatzen baitzuten itsasontziak hondoratzea saihestearren.

Sakontxiki mendia inguratuz, Aparain mendi-lepora iritsiko gara, bidean Apain amabirjina ikusita. **3**

50 metrora, Ormolarako bidean, hilarria ikusiko dugu bidearen ondoan. Bidegurutzean, hegoalderantz jarraituko dugu Arnoko mendi-aterperaino, aldapa leun batean gora pinu eta arte artean eramango gaituen bidezidorretik.



**APARAIN (Apain) MENDI-LEPOA**

Santiagorako kostako bidean erreferentzia garrantzitsua, Ormola, Ameigurutz eta Arnoaterekin batera, denak XII. Mendeko agirietan aipatuak.

Toki horietara Sasiola/Astigarribiatik eta Mutrikutik iristen zen Bizkaian sartzeko.

Apaingo hilarriaren xehetasuna.

Mendi-aterpetik 300 metrora, iparralderantz, Arnoko gurutzea aurkituko dugu, Mutriku, Deba eta kostalde osoaren ikuspegi ederra gozatzeko aukera izanda.

Berriz ere mendi-aterpean, hegoalderantz doan bidea (Ameikutz) hartuta, muino txikia igo, 50 metro aurrerago 90º biratu eta, zati bat jaitsi ondoren, Arno mendiguneko mendebaldeko maldetan artadia zeharkatzen duen bidezidor polit bat aurkituko dugu.

Zabalunera irtenda, bidegurutzean mendebalderantz joko dugu, mendi-bide on batetik. Bertatik, laster helduko gara Ameikutzera. **4**



**ARNOKO ARTADIA**

Kare harrizko Arno mendia, Behe-Kretaziko garaikoa, artadi ederrez inguratuta dago. Kantauri isurialdeko artadirik ederrentzat hartzen da eta Europar Batasunak natura interesdun guneen NATURA 2000 zerrendan sartuta dauka.

Hemendik Kostolamendirantz joko dugu. Berehala bi bidezidor aurkituko ditugu (goikoa hartu, ipar-mendebalderantz). Gune honetan, gorosti batzuk ikusiko ditugu garo artean eta burdinezko gurutzea duen harria; laster, pinu artean, Jangoikomendirako bidegurutzera helduko gara.

Eukalipto artean dagoen seinaleko argibideek adierazitakoari kasu eginez jarraituko dugu gure bidean. Inguruan, hegoaldera, Damakorta, Mañukorta, Imitxola ikusiko ditugu eta, pinu artean, Kostolamendi baserriraino helduko gara bidezidor batetik. **5**

Hemendik Olatzera jaitsi ahal gara errepidetik edo, aukera hobea eginda, baserriaren ondoan, iparralderantz, dagoen bidezidorretik, hesia pasatuta.

Armetxa-Saturraran aldera jarraitzeko, dozena erdi pagok erakutsiko diguten mendi-bide on batean sartuko gara, mendebalderantz; pinu artean eta zabaluneren bat igarota, bidegurutze batera helduko gara.



**AMEIKUTZEKO HILARRIA**

Jatorri ezezaguna. Santiagorako bidearen Kostaldeko ibilbidean kokatua, Gipuzkoa eta Bizkaiaren arteko mugatik oso gertu.

Iparralderantz doan bidea hartu eta berehala hasiko gara, poliki-poliki, Armentxa Goikua eta Armentxa bekua baserrietara jaisten. Hemen, porlanezko bidea hartu eta laster Elordi baserriaren paretik pasatuko gara; jarraian, Mixkiamendi auzoko eskola zaharra (gaur egun etxe partikularra) ikusiko dugu eta ondoren Berrosasi baserria. **6**

Armentxa baserria.




50 bat metrora seinalaztapen zutoin bat ikusiko dugu. Orain arteko bidea utzi eta pista hartuko dugu, Saturraranerantz.

Bidean gora bidegurutze batera helduko gara eta, markei jarraituz, iparralderantz egingo dugu (aurrean antenak ikusiko ditugu).
Pinu artean behera Aldabe ingurura iritsiko gara, Tontorramendiren ekialdeko magalean zehar gailur inguruan kokatutako antenetara heltzeko (bertatik, mendebaldera begira, Santa Eufemi, Illunzar, Otoio... ikus daitezke). Mendi bidean aurrera egin eta antenetara doan zementuzko bidea gurutzatu ondoren, beheruntz doan bidezidorretik jarraituko dugu ibilbidean.

**SANTAKUTZ ERMITA**

Inguruko baserritarrek oso maitatu eta gurtutako ermita.

Talaia bikaina, Ondarroaren, bertako portuaren eta kostaldearen zati eder baten ikuspegi aparta. Maiatzaren 3an ospatzen da bertako jaia.



Beheraino ailegatuta, aurkituko ditugun beste seinaleei kasurik egin gabe, hesiaren beste aldetik jarraituko dugu Santakutz ermitarantz abiatzeko. Toki honetatik Ondarroako herria eta portua ikusi ahal izango ditugu. Malda handian behera, pago, akazia eta pinu artean, kostarantz jaitsiko gara, Burgo baserriaren inguruetaraino; eskuinetara, hesia zeharkatu eta Pikuperaino jaitsiko gara. **7**

Saturrarango bidegurutzean Mutriku-Ondarroa errepidea zeharkatuta, eskuinetara, Etxeberri baserriaren pareko asfaltozko bidean gora joko dugu. Ezkerretarako bideskatik jarraituta, aurrerago eta gorago dagoen bide zabalago batetik, Galdonaren atarian agertuko gara, kanpina inguratuta.



**KOSTALDEA**

Kostaldeak hondartza lasaiak eta kala izkutuak babesten dituen itsasertz malkartsua erakusten digu. Argazki txikian, Idurreko Amabirjina; tradizioaren arabera, Amabirjinaren irudia itsasertzeko haitzetan aurkitu zen.

Galdonatik Idurre baserri ederra ikusiko dugu. Sarrerako hesiaren ondoko kaperan Idurreko Amabirjina dago. Errepidean gora, ezkerretara Leizarren eta eskuinetara Matzuri baserriak utziko ditugu atzean Santa Elenako kanpinera heldu aurretik.

Kanpinean sartu eta, beherantz, errepidea utzita zuhaitz arteko bideska hartuko dugu kostalderantz jaisteko Santabatako hondakinetara heldu arte. 500 metro aurrerago, errepide-ibiltokitik jarraituta, San Nikolas auzoko parkeraino helduko gara, ibilbidearen bukaera.




Edita/Argitaratzailea: MUTRIKUKO UDALA, DEBEMEN.
Textos/Testuak: BURUMENDI M.E.
Fotografías/Argazkiak: Javi Castro
Realización/Egilea: KAIOA Publizitatea.
PR GI-22